



Nazioarteko Hizketaldia

ELIKADURAREN ETORKIZUNA ETA NEKAZARITZAREN ERRONKAK XXI. MENDERAKO:

Mundua nork, nola eta zer-nolako inplikazio sozial, ekonomiko eta ekologikorekin elikatuko duen izango da eztabaidagaia

2017ko apirilaren 24 / 26. Europa Biltzar Jauregia. Vitoria-Gasteiz. Araba. Euskal Herria. Europa.



Datozen hamarkadetako elikaduraren etorkizuna aztergai, hainbat gai nagusi hartu dira kontuan etorkizunerantzko begirada itxuratzeko errealitateak eta erronkak zein izango diren sakontzeko. Elikadura oso gai konplexua da, eta gure bizitzako hainbat alderdi hartzen ditu.

Hizketaldi honek konplexutasun horren gainean eztabaidatzeko gunea izan nahi du, eztabaida aberasteko, sektoreko hainbat ikuspegi batuta (nekazariak, arrantzaleak, erakunde publikoak, ikerketa, etab.). Mundua nola elikatu, erronka hori eztabaida historikoa da, baina topaketa honek badu berrikuntzarik: posible den ala ez den eztabaidatzea baino harago joateko asmoa du.

Zehatz-mehatz aztertu nahi da gaur egun nola egiten ari garen; zer jardunbide dauden abian eta zer

ondorio eragiten dituzten; nola ari den egia bihurtzen elikadura-burujabetzaren ikuspegia; elikadura-sistemaren inguruko aktibismoarekin eta ikerkuntzarekin, elkarren esperientzietatik zer ikas dezakegun etorkizunerako bidea definitzeko...


Gaur egun agroelikadura-sistema globalak eragiten duen krisialdi ekonomiko, ekologiko eta sozialaren larritasuna ikusita, beharrezkoa da egungo testuingurua aztertzea. Hala ere, hizketaldi honen xedea azterketa horien indarra bideratzea da, etorkizunerantz zer urrats eman behar ditugun hobeto ulertzeko.

Gaur egunera arte garatuen dagoen elikadura-proposamen alternatiboa elikadura-burujabetza da, baina oraindik ere asko falta da proposamen hori nola "operationalizatu" ulertzeko. Hamar urte igaro dira jada Nyeleniko adierazpena egin zenetik; eta elikadura-burujabetzaren sei ardatzak finkatuta, urrats garrantzitsua izan da ideietatik jardunera aldatzeko.

Sei ardatz horiek kontzeptua finkatzen lagundu zuten, eta Via Campesinak eta beraien aliatuek ideia horren inguruan proposatzen duten eraldaketan esku hartzen duten gaiak eta eremuak ugariak direla erakutsi dute.

Hizketaldian gai horiek jorratuko dira gai nagusien barruan eztabaida gidatzeko.

Ardatz bakoitzean, eraldaketarako urratsak markatzen ari diren aukera zehatzei erreparatuko zaie batez ere.



Gai nagusiak

1. Kapitalismoa, klasea, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza.

Ekoizpen-ereduen aniztasunaren barruan, zer balio ematen zaie (edo ez) elikagaiak hornitzen dituztenei? Batera existi al daitezke nekazaritza-eredua eta agronegozia? Artisau erako arrantza eta akuikultura industrialak? Zer teknologia behar dira eredu desberdinak hedatzeko eta nork kontrolatzen du/irabazten du/ galtzen du haien hedapenarekin? Zer lan mota dago inbisibilizatu, informala edo ordaindu gabea? Zer nolako tentsioak daude elikagaiak ekoizten dituzten onuren eta gizarteko beste sektore batzuen artean?

Klasea, etnia eta generoa aztertuta, gai honek botere-dinamikak aztertzen ditu, ekoizpen-eredu desberdinak, klase-formazioa, metaketa-prozesuak eta elkarren arteko harremana ebaluatuz. Gainera, atal honetan urrats batzuk emango dira elikagaien hornitzaileek nola diharduten eta sistema desberdinek nola balioesten dituzten jakiteko.

2. Klima aldaketa eta konbergentziak.

Krisialdi ekologikoak eta klima-aldaketari eman beharreko erantzunek elikagaien ekoizpenarekin eta munduko elikadurarekin loturiko ingurumen-ondorioetan pentsatzera behartzen gaituzte. Testuinguru horretan, hainbat proposamen ikus daitezke "karbono urdinetik" hasi eta agroekologiaraino.

Ondasun naturalak ekoizteko, kontsumitzeko eta kontrolatzeko moduen barruan, **nola eta zenbateraino egiten da lan naturarekin?** Errealitate ekologiko aldakorrek aliantza estrategiko berriak agerrarazten dituzte; esaterako, ingurumenaren, nekazaritzaren eta arrantzaren inguruko mugimenduen artean.

Zer nolako tentsioak daude eta zer dira konbergentzia-dinamikak? Nola erabiltzen dute eragileek klima-aldaketaren marko politikoa, maila desberdinetan, eta zer-nolako motibazioekin? Zer ekoizpen, kontsumo eta teknologia ereduak dakartzate klima-aldaketa arintzeko estrategiak, eta zergatik? Nola eragiten dute kokapen geografiko eta geostrategikoei klima-aldaketa arintzeko proposamen horietan?

3. Garapen-ereduak kapitalen, ondasunen eta jendearen fluxuen testuinguruan.

Egungo elikadura-sistemaren dimentsio globala kontuan hartuta, eta elikadura-burujabetzaren eraikuntzan merkataritzak duen rola eta merkatuetarako irisgarritasunaren testuinguruan: **Nola irits daiteke tokiko elikadura-sistemetara?** Zer inplikazio dituzte prezioak ezartzeko moduek? Zer desoreka eragiten dituzte betekizun fitosanitarioek? Nola babesten da tokiko erabakitze ahalmena elikadura-erregimen globalaren dinamiketan, merkataritza akordioetan (TTIP, CETA, TTP etab.) eta nazioz gaindiko nekazaritzako elikagaien enpresen aurrean?

Eta asmoa bada tokiko sistemen alde egitea eta tokiko erkidegoen eskubideak lehenestea, nola erantzungo diegu migrazio prozesu/fenomeno berriei? Zer eginkizun dute industriako elikagaien enpresetako soldatapekoek elikadura-burujabetzaren eraikuntzan? Nolakoak dira nekazarien merkatu eta ekonomiak?

4. Ekoizpen-bideetarako irisgarritasuna eta haien kontrola.

Lurra, ura eta itsasoa metatzeko prozesuen eta **finantzializazioaren** eta espekulazioaren aurrean, **nola bermatzen da (edo ez) ondasun komunen gaineko tokiko kontrola eta boterea?** Zer eragin dituzte lurarekin, haziarekin eta urarekin erlazioaturiko politikek?



Ondasun naturalen kontrola dutenak zer beste faktorek/mehatzuk kaltetzen dituzte (jabetza-erregimenak, generoa, araudiak, arazo sozialak, geografia, merkaturatzea)?

Nola aldatzen dira kontrol-dinamikak ekoizpen-ereduaren arabera? Zer dira irispiderako eta kontrolerako mekanismoak? Zer eragin dute lurra edukitzeari eta tokiko arrantzari buruzko nazioarteko jarraibideek? Zer ordezkotzko aukera daude lurrak, ura edo haziak berreskuratze/askatzeko, maneiatzeko eta kontrolatzeko eta nola funtzionatzen dute?

5. Kontsumoa, osasuna, nutrizioa eta elikadura eskubidea.

Nola bermatzen dira elikagaiak herriarentzat?

Elikadurarako eskubidea onartzea oso tresna garrantzitsua da, baina serio kontuan hartzea eta gauzatzea erronka handia da testuinguru honetan; izan ere, biztanleria hazten ari da eta milioika pertsona ekonomia kapitalistaren zirkuituan sartu izanak dieta eta kontsumo-ohiturak aldatzea eragin du, eta horrek guztiak elikagaiak ekoizteko, prozesatzeko eta banatzeko eruedetan ondorioak izan ditu.

Inguruabar hori "benetako" elikagaiaren erreferentziaren galerarekin lotzen da eta ondorioak ditu guztion iruditeria globalean.

Egoera horren aurrean, nola saihestuko ditugu gainelikadura eta malnutrizio arazoak? Zer tresna politiko eta ordezkotzko proiektu daude alderdi horiei ekiteko? Tokiko eremuan, nola ari dira hobeto lotzen kontsumoa eta ekoizpena? Nola saihesten da (edo ez) produktu ekologikoak produktu elitistatzat bereiztea, ekoizleen soldatak jaitsi gabe? Zein dira sektore horiek elikadura-burujabetzaren aldeko mugimenduekin lotzen

laguntzen duten kontsumo, osasun eta nutrizioaren dimentsio politikoak?

Nola eraikitzen da garapen ekonomiko eta sozialerako proposamen estrategikoa herrialdea ardatz hartuta, eta kontsumotik?

6. Elikadura-burujabetzarako mugimenduak.

Etorkizunera begiratzeak dakar ideiei eta ereduiei ez ezik, ordezkotzko aukeren eraikuntzan zeregin aktiboa izan dezaketen pertsonen formazioari ere arreta egitea. Nekazaritza munduaren feminizazio-prozesuen aurrean, *nekazaritzagabetzea* edo nekazaritzari berrekitea, **norekin eta nola garatzen dira etorkizunerako behar diren ezagutzak eta trebetasunak?**

Ardatz honetan formazio-prozesuei eta gazteak nekazaritza eta arrantza munduari atxikitze moduei buruzko ikuspegiak bildu ditugu, baina bestelako gaien buruz ere eztabaidatuko da, hala nola elikadura-burujabetzaren mugimenduaren baitako eragile berriak atxikitzea eta daudenak ahalduntzea:

Zein dira nekazari berriak? Zer formazio-prozesu behar dira behar besteko erreleboa sortzeko?; Nola trukutzen dira metodologia pedagogikoak eta, aldi berean, tokiko beharizanei eta testuinguru espezifikoei arreta egiten jarraitu?; Nola kokatzen da bakoitza taulan dagokion tokian? (erakunde multilateralak, erakunde nazionalak, politika publikoak, gobernu nazionalen kokapena/erreakzioa elikadura-burujabetzaren paradigmaren aurrean); Zer zeregin dauka unibertsitateak? (zientzialari eta ikertzaile sozialek nekazarien mugimenduekin duten harremana); Zer eginkizun dute aliatuek prozesu honetan eta nolako harremana dute nekazarien mugimenduekin?; Zer ikas dezakegu ikuspegi historiko eta globaletatik tokiko ekintzen alde egiteko?

* Ekitaldian erabiliko diren hizkuntzak: gaztelania, ingelesa, euskara. Hiru hizkuntza horietako edozeinetan aurkeztutako lanak onartuko dira, baina ez dira itzulita egongo.



Parte hartzeko moduak:

Txostengilea:

Hizketaldian aurkezteko, goian adierazitako 6 ardatzetako bati (edo haien arteko konbinazioari) buruz egingo den idatzizko lan baten laburpena edo panel oso baterako laburpen-multzoa bidali (4-6 laburpen eta idazki orokor bat) . Nazioarteko Hizketaldirako idazkiak 10.000 hitz gehienez izango dituzte eta Hizketaldiaren webgunean argitaratuko dira ekitaldia baino 3 aste lehenago.

Tailer bat proposatzea:

Espazio honek balio du Hizketaldian bestelako metodologiak edo gaiei buruz hitz egiteko bestelako moduak proposatzeko. Tailerrek ordu eta erdiko iraupena izango dute, eta mahai-inguruak, bilera estrategikoak, formazio-espazioak, gai garrantzitsuei buruzko arte-erakusketak edo proposatu nahi diren bestelako ideiak izan daitezke. Ez da beharrezkoa hizketaldiaren aurretik lan idatziak aurkeztea, nahikoa da tailerraren ideia azaltzeko 1-2 orrialdeko proposamena.

Entzulea:

bertaratu, entzun, eztabaidetan parte hartu eta partekatu. Elikadura-burujabetzan oinarrituriko etorkizuneko nekazaritzako elikagai-sistemaren eraikuntzan partaide izango zara.

Data garrantzitsuak

- Laburpenak emateko epea: 2017ko otsailaren 15a.
- Tailerren proposamena emateko data: 2017ko otsailaren 15a.
- Txostenak eta tailerrak berrestea/onartzea: 2017ko otsailaren 28a.
- Paper osatuak emateko data: 2017ko martxoaren 20a.

***Nazioarteko Hizketaldian parte hartzeko harremanetarako helbidea:

elikadura21@gmail.com

*** Otsaileko 3.astetik aurrera informazio eguneratua izango da eskuragarri web orrialde espezifiko batean:

www.elikadura21.eus

Antolakuntza komitea

Jun Borrás (ISS/ICAS): junborras5@gmail.com

Unai Aranguren (EHNE Bizkaia/Etxalde/La Via Campesina): unai@ehnebizkaia.eus

Zoe Brent (TNI): zoebrent@gmail.com

Xarles Iturbe (La Via Campesina): xarles@viacampesina.org



Konfirmatutako txostengileen zerrenda:

- Unai Aranguren. País Vasco. La Via Campesina.
- Naseegh Jaffer. WFFP. Foro Mundial de Pueblos Pescadores.
- Silvia Perez Vitoria. Sociologist and Economist. La ligne d'Horizon.
- Alazne Intxauspe. Jóvenes EHNE Bizkaia
- Papa Bakary Coly, *Papis*. (CNCR) Senegal. (LVC)
- Ohiana Etxebarrieta (Mov. Feminista)
- Susan George (TNI) *por confirmar*
- Centro Estudios Ambientales. Gasteiz.
- Ian Scoones (IDS Sussex)
- Henry Bernstein (Inglaterra)
- Dzodzi Tsikata (Institute of Statistical, Social and Economic Research (ISSER) at the University of Ghana)
- Maria Jose Ainz Ibarrondo (UPV/EHU, Euskal Herria)
- Peter Rosset, ECOSUR. Colegio de la Frontera Sur. Chiapas. México
- Joan Martinez Alier. Catedrático de Economía e Historia Económica de la Universidad Autónoma de Barcelona
- Mikel Hiribarren. ELB. ETXALDE.
- Sofía Monsalve (FIAN)
- Raj Patel (US/Inglaterra)
- Raul Delgado Wise (Universidad de Zacatecas, México)
- Valter Israel da Silva (MPA, Brasil)
- Jenny Franco (TNI)
- Imanol Esnaola. GAINDEGIA Observatorio para el desarrollo socio-económico de Euskal Herria.
- Ashlesha Khadse. Amrita Bhoomi. Zero Budget Farming. <http://www.amritabhoomi.org/>
- Txetxu Nuñez (Carta de derechos sociales de Euskal Herria/movimiento sindical).
- Silvia Ribeiro. Grupo ETC.
- Mamen Cuéllar. Andalucía.
- Anne Bellows (Univ. De Syracuse, EEUU)
- Jennifer Clapp (Univ. De Waterloo, Canada)
- Marc Edelman (CUNY, EEUU)
- Yan Hairong (Universidad Politécnica de Hong Kong)
- Christina Schiavoni. ISS / ICAS
- Nora McKeon (International University College, Turin/Rome 3 University).
- Annette Desmarais, Manitoba University (Canada).
- David Barkin (UAM-Xochimilco). Mexico.
- Glenn Stone (Washington University).
- Ben Cousins PLAAS - Institute for Poverty, Land and Agrarian Studies.South Africa
- Ruth Hall de PLAAS - Institute for Poverty, Land and Agrarian Studies.South Africa.